


KONTZERTUAK HM Txokoan  
**Neguko kontzertua**

2007ko abenduaren 29an- arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

**LANDA AITA-SEMEAK**

*Albizturko aho-soinua*



Markox Landa Albiztur jai zen eta oso goiz hasi zitzaion aho-soinuarekiko zaletasuna. Geroago, Aitor eta Markox bere semeak ere zaletu ziren. Gaur egun, Anoetan finkatutako hirukotea plazaz plaza dabil soinu-tresna hau jotzen. 1991.an, disko bat grabatu zuten elkarrekin, Markox aitak sorturiko abestiez osatua gehienbat. Diskoa, "Albizturko Aho-soinua" izendatu zuten, aitaren jaioterria aipatuz.

Beraien errepertorioan, trikitixa doinuak dira nagusi: kalejira, trikitixa, porrusalda, fandango, arin-arin...

Goiko argazkian aita-semeak Aiako San Pedro auzoko plazan ikus ditzakezue, bertan dagoen trikitilarien estatuaren aurrean.

Neguko kontzertua HM Txokoan

**AFARIA KONTZERTU ONDOREN**

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariek egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua murrizta baita. Prezioa: 15 euro.



**Kontzertu honen laguntzaileak:**



# Jean Marc LEMPEGNAT eta Jaqueish ROTH

*Biarnoko herri musika*



Biarno, Pabe inguruan eratzten den lurralde historikoa da, Euskal Herria, Landak, Aragoi eta Bigorre bizilaguntzat dauzkalarik. Bere herri musikaren oinarriak hauexek dira :

- Biolina, hiru zuloko flauta eta sokazko danborrak osaturiko taldea
- Sauts (jauziak) eta branleak, dantzen errepertorian nagusi
- Herri kantu oso garatua, polifonia herrikoiak barne (gutxi gora behera mila abesti jasota, batzuk XVI. mendekoak)

Jean Marc Lempegnat eta Jaqueish Roth duela 15 urte hasi ziren Biarnoko musikaren berreskuratze lanetan elkarrekin: aintzineko abesti eta soinu-tresnak berreskuratu (Jaqueishek flauta zaharren kopiak ere egin

izan ditu), erritmoak, harmonia herrikoiak, beste-lako datuen bilketa,...

Musika jole bezala bereziki festa tradizionalak maite dituzte: Ihauteria, Sanjuanak, Gabonak, herrietako festak,...

Bere ikerlanen emaitzak berehalaxe zabaltzeko era ezberdinak erabiltzen dituzte : herri kanta ikasteko asteroko bilerak, grabazioak, internet bidezko hedapena dohainik ([www.biarn.org](http://www.biarn.org)),...

Kontzertu honetan arituko direnak:

- |                        |   |
|------------------------|---|
| Flauta eta ttun ttuna: | <b>Jaqueish Roth</b>                              |
| Biolinak:              | <b>Jean Marc Lempegnat</b><br><b>Cati Rambaud</b> |
| Pandereta :            | <b>Ana Larquier</b>                               |
| Akordeioa:             | <b>Miqueu Lahiteta</b>                            |